“Buen Pastor” ikastetxearen kronika

Aurrekariak:

XX. mendearen hasieran, Legazpi landa-eremuko herria zen, baina hasi berria zen industriak eguneroko soldata bat ematen zien baserritar askori, haien diru-sarrera urriak osatzeko.

Patricio Echeverria jaunaren fabrika handitzearen ondorioz langile asko bildu ziren. Haientzako etxebizitzen premia larria izateaz gain, eskolak ere behar ziren, garai hartan Legazpik bi eskola nazional baino ez zituelako, eta eskola horiek ez ziren nahikoak herriko haur kopururako.

XX. mendeko 30eko hamarkadaren hasieran, 50 haur inguruk Zumarragara joan behar izan zuten La Salle ikastetxera, Patricio jaunaren fabrikako langileen autobusean.



1935. Anaien Eskola baten proiektua.

1935eko uztailean, Esperanza Sagredo de Segura andrearen ekimenez, batzorde bat antolatu zen herri honetan haurrentzako eskola katoliko bat ezartzeko aukera aztertzeko. Horretarako, Zumarragako La Salle Anaiekin hitz egin zuten. Asmoa bi irakaslerentzako eskola bat eraikitzea zen. Eskola horretan 50 m²-ko bi ikasgela, bulego bat eta komunak egongo ziren. Hori guztia 60 ikaslerentzat. Hasiera batean, bazirudien Batzordea eta La Salle Anaiak akordio batera iritsi zirela eskola motari eta kostu ekonomikoei dagokienez, baina azkenean ez zen akordiorik lortu eta negoziazioak hor amaitu ziren.

Udalaren eskola-proiektua 1936an.

Bitartean, Udalak dirulaguntza bat emateko izapideak egin zituen Instrukzio Publikoko Ministerioarekin. Indarrean zegoen legeriaren arabera, dirulaguntza hori kostu osoaren % 85ekoa izango zen, eta neskentzako Eskola bat sortzeko erabiliko zen; horrela, plazan zegoen eraikin ederra mutikoentzako eskola izango zen. Emakidaren arrakasta zoriontsua zapuztu egin zen, 1936ko uztailaren 18an, Gerra Zibila lehertu zenean.

Patricio Echeverria jaunak behin betiko irtenbidea eskaini zuen.

Patricio Echeverria jaunak berriro planteatu zuen ikastetxea egitearen jatorrizko ideia. 1938ko egun batean, ikastetxe bat eraikitzeko eskaintza egin zion Udalari, baina baldintza bakar batekin: ikastetxe hori eraikitzeko behar zituen lurrak ematea. Aukeratu zen lursaila Jesus Segura jaunaren teila fabrikarako buztina ateratzeko eremua zen. Udalak lursailak 60.000 pezetatan eskuratu ondoren, 7.500 m² inguru etorkizuneko ikastetxea eraikitzeko bideratu ziren, eta gainerako azalera kirol-gunerako gorde zen.

Hainbat kontsulta.

Irakaskuntzan zihardueN erlijio-kongregazioren batekin kontratu bat formalizatzea falta zen oraindik. Lehenik eta behin, Patricio Echeverria jaunak Iruñeko Salestarrengana jo zuen, eta, geroago, Mariaren Bihotzaren Aitengana, baina haiekin ez zen akordiorik lortu, baina bai Kristau Eskoletako Anaiekin, 1939an. Patricio Echeverria jaunak deituta honakoak elkartu ziren Legazpin etorkizuneko ikastetxearen kokalekua aztertzeko: Cesareo Anaia, Anaien ikuskatzailea; Aproniano Anaia, Zumarragako Elkargoko zuzendaria; Francisco Urcola arkitektoa eta bere iloba Miguel Urcola jauna.

Ikastetxe berriaren obrak eta La Salleko Anaien komunitatearen eraketa.

1941eko urtarrilaren 1ean, lehenengo harriaren bedeinkapenarekin hasi ziren eraikitze-lanak. Lehenengo harri hori aldarearen azpian jarri zen, absidearen aurrealdean.

1942ko uztailean, Anaia Ikuskatzaileak enkargu bat egin zion Zumarragako Legazpi Eskoletako zuzendari ohi Lizier de Jesus Anaiari: fundatzaileekin elkar ulertzea Fundazioaren hitzarmen bat egiteko.

Abuztuaren 2an, Patricio jaunak zuzendaria hartu zuen, Jose semea eta Julian Lasa suhia aurrean zirela. Eraiki beharreko ikastetxe berriaren alderdi guztiak jorratu zituzten han, eta abuztuaren 17an hitzarmena aurkeztu zioten Julian Lasa jaunari, azter zezan. Handik bi astera, Patricio jaunak hitzarmena sinatu zuen eta sinatuta bueltatu zen.

<u>Patricio Echeverria jaunaren eta Kristau Eskoletako Anaien Institutuaren arteko hitzarmena, Legazpin ikastetxe bat ezartzeko</u>

1. Patricio Echeverria jaunak, Legazpiko haur pobreei eta, bereziki, bere langile eta enplegatuen seme-alabei mesede egiteko, lehen hezkuntza graduatuko doako eskola bat ezartzen du, “Colegio Buen Pastor” izenarekin. Erlijio katoliko, apostoliko eta erromatarreko printzipioetan oinarritutako irakaskuntza eta heziketa emango da.

Halaber, helduentzako gaueko eskola bat eta Ikaskuntza Eskola bat antolatuko dira.

2. Anaien betebeharra izango da zentro horretan langile nahikoak eta egokiak jartzea. Gainera, etxeko zerbitzurako Anaia bat egongo da, edo, bestela, morroi bat.

3. Anaia irakasleek Irakasle Nazionalaren kategoria orokorreko irakasleen soldataren baliokidea den urteko ordainsaria jasoko dute, gaur egun 5.000 pezetakoa dena. Hilean 300 pezetako soldata jasoko dute komunitatearen zerbitzura dagoen Anaiarentzako edo morroiarentzako.

4. Fundazioak beharrezko hornidura emango dio Komunitateari: altzariak, baxera, arropa eta abar, eta doan emango ditu berokuntzarako eta sukalderako behar den ikatza, argia eta ura.

5. Anaia zuzendaria arduratuko da ikastetxeko kapera zaintzeaz, eta behar bezala zainduko du leku santu horretarako behar den guztia. Ikasle guztiek entzun beharko duten Meza, fundatzaile elizkoien asmotan izango da. Fundazioak kapilau bat izendatuko du.

6. Fundazioaren ardura izango da eraikina garbitzea eta kontserbatzea, Komunitateko gelak izan ezik, eta ikasleei doan emango die eskola-materiala.

7. Ikasturtea amaitzean, ikasketetan aplikatzeagatik, eskolara maiz joateagatik eta jokabide ona izateagatik nabarmendu diren haurrak sarituko dira.

8. Fundatzaileen eta Anaia zuzendariaren artean adostuko da haurren onarpena. Onartuak izateko, haurrek letreiatzen jakin behar dute, eta zazpi urte izan behar dituzte.

9. Anaiek beren egoera santuaren espirituari eta irakaskuntzaren uniformetasunari eutsi ahal izateko, askatasun osoa izango dute beren Institutuaren arauak betetzeko, "Guia de las Escuelas" izeneko liburuan jasotako praktikei jarraituz.

Legazpin, 1942ko abuztuaren 31n.

Cesareo Anaia agurgarria, Anaien probintziala Patricio Echeverria jn.

1942-1943 ikasturtearen inaugurazioa

Irailaren hasieran izendatutako Anaien Komunitatea hiru anaiek osatzen zuten: zuzendaria, Lizier de Jesus Anaia; Demetrio Lamberto Anaia eta Jorge Camilo Anaia. 1942ko urriaren 19an hasi ziren matrikulazioak eta matrikulazio-kopurua handia izan zenez, Modesto Anaia bidali zuten tarteka, eta ondoren Higinio Anaia etorri zen bere ordez. Urriaren 26an inauguratu zen ikasturtea, 196 ikaslerekin eta lau gradurekin.

Gau eskolak.

Eraikinean obrak egiten ari baziren ere, normaltasunez ematen zuten klasea, eta azaroaren hasieran fabrikako langileentzat gaueko klaseak ematen hasiko zirela iragarri zen, lau irakaslerekin. Lehenengo gauetik aurrera 80 gazte baino gehiago aurkeztu ziren ikasgeletan.

Patricio jaunari omenaldia eta ikastetxearen inaugurazioa

Ikastetxearen inaugurazio ospetsua 1943ko otsailaren 7an, igandean, egitea erabaki zen. Bezperan hasi ziren inaugurazio-ekitaldiak. Kanpaien dilin-dalanak iragarri zuen jaien hasiera eta arratsaldeko 7:30ean Kapera bedeinkatu zen.

Hurrengo egunean, kalejira alaiak izan ziren, ongi etorri egin zitzaien agintariei eta goizeko 10:00etan Meza Nagusia ospatu zen Apezpiku jauna bertan zela eta Donostiako Orfeoiko abesbatzak abestu zuen. Ondoren, Apezpiku jaunak prozesioan eraman zuen Sakramentu Santua, ikastetxeko kaperara.








Jarraian, ikastetxeko ekitaldi-aretoan, ikastetxearen inaugurazio-ekitaldia eta Patricio Echeverria jaunaren omenaldia egin ziren. Ekitaldia Patricio jaunaren semeak, Jose Echeverria jaunak, hasi zuen. Hark, hitz hunkigarriak esanez, Kristau Eskoletako Anaiei eman zien eraikina, eta Cesareo Anaia ikuskatzailearen esku jarri zuen giltzen sorta sinbolikoa. Jose Echeverriaren hitzaldiaren ondoren, agintarien miresmen eta esker oneko beste batzuk etorri ziren, omendua goraipatzeko.





Gobernadore Zibila, Patricio jaunari betiereko alkate gisa egiaztatzen duen sinboloa ematen.





Apezpiku txit gorenaren diskurtsoa.

Agustin Brunet, Aldundiko presidentea.

Patricio jaunaren omenaldia amaituta, agintariek eta gonbidatuek Ikastetxearen bulegoetan barrena egin zuten inaugurazio-bisita. Lehen aipatutako agintariez gain, Donostiako alkatea, Elizbarrutiko Ekintza Katolikoaren presidentea, Ekoizleen Ligako idazkaria, Urcola arkitektoak, Probintziako Ikastetxeetako zuzendari guztiak eta beste pertsona ospetsu batzuk ere egon ziren. Bisita amaituta, agintariek eta gonbidatuek bazkari bat egin zuten Donostiako Nicolasa Etxe famatuak zerbitzatuta.





Festa amaiera

Donostiako Orfeoiak kontzertu interesgarri bat eman zuen herriko plazan, arratsaldeko lauak eta erdietan. Bilboko artista ospetsu batzuek eta «Quiquito» pailazoak jaialdi jostagarri bat eskaini zuten, eta Eskolako aretoa betetzen zutenek une zoragarria igaro zuten. Horrela eman zitzaion amaiera egun ahaztezin hartako jaien egitarauari.